

**Elikadura osasungarria eta iraunkorra eskuragarri egitearen alde dihardu**

## **EROSKI-K BERRITU EGIN DU OSASUNAREKIN ETA IRAUNKORTASUNAREKIN DUEN KONPROMISOA**

- Kooperatibak hamar konpromisotan dakar bere proposamena gizarte osasuntsuagoa lortzeko eta ongizate handiagoa ekartzeko
- Marka propiotik palmaren eta kokoaren gantzak kentzeko konpromisoa hartu du 2020rako
- 2024rako, bere dendetan saltzen diren arrautza guztiak lurrean hazi diren oiloek errunak izango dira
- 5.000 lagunek baino gehiagok lagundu dute dekalogo hau eratzen (bazkideek, langileek, bezeroek eta interes taldeek)
- EROSKIk betidanik izan duen gogoia indartu du; izan ere, orain dela 50 urte jaio zenean, haren guraria izan da bizi kalitatea hobetzea eta gizarte iraunkor baten alde egitea

Elorrio, 2018ko apirilaren 4a.- [EROSKI](#)k berritu egin ditu osasunaren eta iraunkortasunaren alde hartuak dituen konpromisoak, eta dekalogo batean laburtu ditu, bere xedetzat hartuz osasunaren eta ongizatearen kalitatea hobetzea eta gizarte iraunkorragoa sustatzea.

EROSKIk eguneratu egin ditu, jaio zenetik 50 urte joan diren honetan, kontsumitzaileekin eta gizartearekin izan dituen konpromisoak; hau da, bizi kalitatea hobetzen laguntzea eta gizartearen garapen iraunkorra sustatzea, eta, kooperatiba den aldetik, leial ari da bere izaera eta xede kooperatiboa betetzen. 5.000 lagunek baino gehiagok lagundu dute katalogo hau eratzen, hala nola bazkideek, langileek, bezeroek eta interes taldeek.

Kooperatibak bertsio berrituan dakartzan hamar konpromisoek hiru ardatz dituzte: batetik, elikadura segurtasuna; bestetik, elikadura osasungarriarekiko eskuragarritasuna, prezio xumean; eta, bestetik, informazioa. Eta hauek dira konpromisoak:

1. Elikadura segurtasunaren alde inplikatzeara.
2. Elikadura orekatua sustatzea.
3. Haurren gizentasunari aurre hartzea.
4. Nutrizio premia espezifikoei begiratzea.
5. Kontsumo arduratsua egiten laguntzea.
6. Tokian tokiko produktuak ugaritzea.
7. Ongi jatea prezio onean.
8. Argitasunez eta gardentasunez jardutea.
9. Langile gisa zaintzea.
10. Bizimodu osasungarriagoa bultzatzea.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[On line prensa aretoa](#)

*"Elikadura osasungarri bat eramateko aukera eskura jarrita, gure helburuak indartu ditugu; hau da, gizarte iraunkorrako baten alde egitea eta osasun eta ongizate maila handiagoa erdieste. Batez ere elikaduraren arloan diharduen operadore bat gara, eta, kontsumitzaile askorentzat, janari hornitzaile nagusia; horrek erantzukizun handia dakargu. Gure erronka da elkarrekin gizarte sanoago batera iristea",* azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Lehenengo lau konpromisoek zerikusia dute nutrizioarekin eta elikadura seguru, sano eta orekatu batekin. Lehenengoari dagokionez, elikadura segurtasuna aipatzen du, zeina ezinbestekoa baita nola produktuetan —batez ere, marka propiokoetan— hala egoitzetan. EROSKI prebentziozko kalitate plan bat du, eta, haren bitartez, 11.000 produkturen analisiak egiten ditu, eta urtean, 400 hornitzaile baino gehiago ikuskatzen.

### **Palmaren gantza kenduko du 2020rako marka propioetik**

EROSKIren bigarren konpromisoari dagokionez, hitza ematen du elikadura orekatua eskainiko duela. Horretan ari da, batetik, dieta orekatuetan maiztasun handiz erabiltzen diren janari taldeak sustatuz. Bestetik, gutxien jan behar diren janari taldeetatik, marka propioko produktuen errezetak ikuskatuz eta horien nutrizio ezaugarriak hobetuz, hala nola gantza eta azukrea gutxituta eta gantz mota hobeak erabilita... 2013tik, EROSKI gutxituz joan da, eta 2017an, EROSKI 325 tona azukre, gantz eta gantz kendu zituen bere markako produktuetatik. Konpromiso horren lan larroei dagokienez, nabarmentzekoa da palma eta koko gantzak kenduko dituela marka propioko produktu guztietatik 2020rako.

Hirugarren konpromisoa, berriz, haurrei begirakoa da. Haurren obesitateari aurrea hartzeko —zeina haurtzaroko mehatxurik handienetakoa baita gaur egun—, haietzako izaten diren marka propioko produktuak berriz formulatzen saiatuko da EROSKI, osagaiak egokiagoak izan ditzaten. Era berean, abian ditu prestakuntza programa indartsu batzuk, haurrek eta haien ingurune hurbilak —eskolak eta familiak— ohitura osasungarriak ikas ditzaten. Bi milioi haurrengana eta horien familiakoengana iritsi nahi du 2025erako. Gaur arte, 760.000 haurrek baino gehiagok parte hartu dute [\*Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programan\*](#). Espainia osoko ikastetxeetan ari da lantzen, [\*Elikadura Eskolaren\*](#) bitartez.

Laugarren konpromisoan aurkituko dute erantzuna intolerantziak direla medio elikadura berezia behar dutenek, esaterako, zeliakoek eta alergia dituztenek, edo bizitzako aro eta estilo jakinen batean bizi direnek. EROSKI jasota utzi du borondatea duela horrelako eskariak betetzeko orduan eskaintzen diren produktuak seguruak izan daitezzen, jendeak erosketa arrunt baterako behar dituen adinako produktuak izan ditzan eta ordaintzeko moduko prezioa izan dezaten.

### **Kontsumo eredu iraunkorrakoak**

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[On line prensa aretoa](#)

Baina, elikatzeko era arduraz hartzeko, sana eta orekatua izateaz gain, iraunkorra izan behar du, eta horretan dihardu EROSKIk bere bosgarren eta seigarren konpromisoetan. Eskakizun ekonomiko, sozial eta etiko bat da prozesuak, eraikinak eta produktuak iraunkorrak izatea. EROSKIren dekalogoan funtsezkoa da baliabideak modu iraunkorrean erabiltzea, ingurumenean uzten den arrastoa gutxitzea, klima aldaketari aurrea hartzea eta bioaniztasuna babestea. Kooperatibak gutxitzen jarraituko du bere dendek, flota logistikoak eta produktuek uzten duten ingurumen arrastoa. Bezeroei produktu iraunkorragoak errazago erosten laguntzeko eta era berean haien hezkuntza hobetzeko, berriz, EROSKIk konpromisoa hartu du bere markan ekodiseinuaren irizpideak erabiltzen jarraitzeko, animalien ongizatea hobetzeko eta iraunkortasun diferentzialen irizpideak txertatzeko marka propioan (bereziki freskoetan). Datozen urteetan ezarriko dituen ekintzen artean, hauek dira nabarmentzekoak: koloratzaileak, antioxidatzaileak eta kontserbagarriak kentzea bere markako produktuetatik; bi urteren buruan EROSKI eta EROSKI Natur markako fruituei eta barazkiei egiten zaizkien tratamendu fitosanitarioak kentzea; eta 2024rako bere sareko dendetan saltzen diren arrautza guztiak lurlean hazitako oiloek errunak izatea.

Elikadura iraunkorragoa sustatzeko, ez zaie begiratu behar soilik ingurumenarekin zerikusia duten kontuei, gizarteko kontuei ere begiratu behar zaie. Osasunari eta iraunkortasunari lotua den EROSKIren seigarren konpromisoan, ingurunearen garapen sozial eta ekonomikoa sartzeko da, eta, orobat, enplegua eta tokian tokiko aberastasuna sustatzea eta kultura gastronomikoa errespetatzea. Banaketa enpresa den aldetik, kooperatibak babesa ematen die nekazaritzako elikagaiak ekoizten dituzten hornitzaileei eta hurbileko harremana du haiekin; hala, tokian tokiko 2.000 hornitzaile txikiren 20.000 produktutik gora eskaintzen du. Eta, eragile soziala den aldetik, bera jarduten den eskualdeetako gizarte gaitan, kulturazkoetan eta elkartasunezkoetan inplikatzeko da eratu zenetik, eta, hala, enpresako etekinen zati on bat itzultzen du leku horietara.

Dekalogoko azken lau konpromisoetan, aurrekoak erdiesteko eman behar duen bultzada eman, eta lankidetzak gauzatuko dituela dator. EROSKIk eragile demokratizatzailea izan nahi du osasunean eta iraunkortasunean, eta hori da zazpigarren konpromisoaren helburua. Kooperatibak murriztu egin nahi du prezioagatik jendeak maiz topatzen duen traba, elikadura orekatua izaten laguntzen duten zenbait janaritan.

Dekalogoko zortzigarren puntuan, berriz, EROSKIk konpromisoa hartzen du proposamen komertzialaren informazioa argia eta gardena izan dadin (etiketak, eskuorriak, aldizkariak...); horretarako, aukerarik onenak zein diren erakutsi eta gomendioak emango ditu, nola eta bezeroarekin harremanetan jartzeko egunerokoan darabiltzan euskarriak erabiliz.

Kooperatiba den aldetik, langileek zeregin funtsezkoa eta desberdina dute, eta helburu dira bere horretan. Bederatzigarren konpromisoaren parte da osasunean,

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

iraunkortasunean eta ongizatean heztea eta ohitura osasungarriak sustatzea, bizi kalitatea hobetzeko.

EROSKI, kontsumo kooperatiba izanik, beti nabarmendu izan da kontsumitzailea hezteagatik eta informatzeagatik. Eta, kontsumitzaileak prestatzeko orduan jartzen ditu indarrak dekalogoko hamargarren konpromiso honetan. Izan ere, haiek hezita, hautu sanoagoak eta iraunkorragoak egiten laguntzen die. Horretarako, heziketa jarduerak lantzen ditu EROSKI Fundazioaren eta EROSKI Cluben bitartez. Kontsumitzailearen zerbitzura tresna aurreratuak jartzeko erronka dela medio, [Ekilibria](#) atera zuen 2017an, diagnostiko nutrizional pertsonalak egiteko programa aurrendaria Espainian. EROSKI Clubeko edozein bazkideren eskura dago, eta elikaduraren inguruko diagnostiko pertsonalak ematen ditu.

Gainera, 40 urte honetan, kooperatibak kalitatezko informazioa zabaldu du osasunaren eta iraunkortasunaren gainean bere aldizkariaren bitartez, [www.consumer.es](http://www.consumer.es), zeinak 5 milioi irakurletik gora baititu hileroko-hileroko. Bestalde, elikadura eta ohitura osasungarria sustatzeko bokazioa dela eta, *Elikadura Eskola* eratua du, hezkuntza programa bat, eskolako adinean diren haurrentzat sortua; familia-ikasgela batekin osatuta dago, heziketa proiektua familietara ere hedatzeko. Elikadura Eskolaren helburuetan dago osasuneko profesionalak, irakasleak, gurasoak, ikasleak eta herritarrak elkartzea, eta jakintzak eman duen kalitatezko eta gaurkotasuneko informazioa eskaintzea.

*"EROSKI In, gure asmoa da elikadura osasungarriagoa eta arduratsuagoa izan dadin laguntzea, bi modutan: lehena, kontsumitzaileari eskura jarrita produkturik onenak, errazagoa izan dadin dieta orekatuagoa osatzea, eta bigarrena, kontsumitzaileari informazioa eta prestakuntza emanda, irizpide hobekak izan ditzan bere dieta diseinatzeko orduan; konpromiso hori guztia gure helburu kooperatiboaren parte da",* azaldu du Martinez Berriochoak.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNÁNDEZ

Tel.: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[On line prensa aretoa](#)